



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Plentziako Udala

**Plentziako artisau azokako postuen esleipena arautuko duten oinarri eta deialdiaren onarpena. 2023 urtea.**

Plentziako Alkateak, 2023ko urtarrilaren 27ko, 40/2023 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Plentziako artisau azokako postuen esleipena arautuko duten oinarri, deialdi eta eskaera orria onartu ditu, horren testua hurrengo delarik.

Plentzian, 2023 otsailaren 3an.— Alkate andrea, Elixabete Uribarri Uriarte



## PLENTZIAKO ARTISAUTZA MERKATUKO POSTUAK ESLEITZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. 2023 URTEA

Plentziako Udalak, artisautza azoken antolatzaileak, artisauak hautatzeko eta azokak egiteko baldintzak ezartzen ditu. Deialdi honek eragina izango du esleipen hau egiten denetik 2024ko Erregeetako Azokara arte egingo diren Artisautza Azoka guztietan.

Azoka horiek derrigor bete behar dituzte hemen adierazitako arauak eta Udaleko organo eskudunek azoken inguruan ezartzen dituzten gainerako arau guztiak. Plentziako Udalak du azokak antolatu, baimendu, gainbegiratu, kontrolatu eta, besteak beste, bertan behera uzteko eskumena, eta berak egikaritutako ditu eskumen horiek bere organoen bitartez.

Artisautza azokak hileroko egingo dira, eta salmentarako ordutegia goizeko 10:30etik eguerdiko 14:30ak artekoa izango da. Bi lotetan antolatuko dira, bakoitza sei hilabetekoa. Gabonetako eta erregetako azokak kenduta, gainerakoak hileko bigarren igandean egingo dira. Interesatuta dauden artisauak lote hauetara aurkeztu daitezke:

- 1. lotea: Martxoak 12, maiatzak 14, uztailak 9, irailak 10, azaroak 12, Gabonak (abendua 24).
- 2. lotea: Apirilak 9, ekainak 11, abuztuak 13, urriak 8, abendua 10, Errege Jaia (urtarrilak 5, 2024).

### 1. Parte hartzeko baldintzak

Artisautza azoketan parte hartzeko eskaera aurkeztu ahal izango dute artisau-jardueratu bat egiten dutela egiaztatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta egunean badaude euren zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharreran.

Ezinbestekoa da ikusgai edo salgai jarritako artikulua guztien egile eta ekoizle izatea, eta artikulua horiek artisau-baliabideak erabiliz eginak izatea. Erakusketariak berak eginitako salgaiak bakarrik aurkeztu ahal izango ditu, eta debekatuta dago prozedura industriarlen bidez fabrikatutako artikulua eta produktuak birsaltzea.

### 2. Salmenta modalitateak eta postu kopurua

Plentziako Artisautza Azokek 25 postu izango dituzte; horietatik 5 elikagaien postuak izango dira, eta gainerakoak artisau-ogibide desberdinetakoak. Lehentasunezko irizpide bezala, produktu mota bakoitzeko gehienez 3 postu egongo dira, elikagaien postuetan izan ezik, horietan produktu mota bakoitzeko postu bakarra egongo baita, baina, nolahi ere, kontuan hartu beharko da interesatutako pertsonen eta postu hutsen kopurua. Postuen esleipen hori aldatu egin ahal izango da libre dauden lekuen eta, besteak beste, eskatzaile kopuruaren arabera.

Interesatutako pertsona fisiko edo juridiko bakoitzak salmenta-postu bakarra eskuratu ahal izango du. Posible da bi loteetan inskribatzea, horietako bati lehentasuna emanez, eta lote bakarra esleituko zaio, lehentasunaren eta lortutako puntuazioaren arabera.

Postuak puntuazio ordenaren arabera esleituko dira, eta puntuazioa emateko kontuan hartuko dira oinarri hauetako 4. puntuan adierazitako balorazio-irizpideak. Beharrezkoa izanez gero, itxaro-zerrendak sortuko dira lote bakoitzerako.

Interesa duten ekoizleek 180 euroko fidantza jarri beharko dute, eta azoken denboraldia amaitzean itzuliko zaie, hala badagokio.

### 3. Eskaerak

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau Plentziako Udalaren [www.plentzia.eus](http://www.plentzia.eus) webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Eskaera guztiak horretarako prestatutako eskaera-ereduan formalizatuko dira, zeina eskuragarri egongo baita Plentziako Udalaren [www.plentzia.eus](http://www.plentzia.eus) webgunean. Eskaera horretan zehaztuko da zein den aurkeztu behar den dokumentazioa.



Horrez gain, baita ere aurkeztu beharko da modalitate bakoitzean baloratzen diren alderdiak (ikus 4: hautaketa-irizpideak puntua) justifikatzeko dokumentazioa.

Hauek dira izena emateko moduak:

- Pertsona fisikoek hurrengo aukerak dituzte: Plentziako Udalaren bulegoetan (Astillero plaza, z/g), Plentziako Udalaren webguneko onlineko tramiteen atalean (<http://www.plentzia.eus/es-ES/Tramites/Paginas/default.aspx>), ziurtagiri digital baten bidez edo edozein administrazio publikotan, ESIn bidez (erregistroen-interkonexio-sistema).
- Pertsona juridikoek aukera bakarra izango dute: Plentziako Udalaren webguneko onlineko tramiteen atalean (<http://www.plentzia.eus/es-ES/Tramites/Paginas/default.aspx>), ziurtagiri digital baten bidez.

Aurkeztutako eskaera edo atxikitako dokumentazioa ongi osatuta ez badago edo akats zuzengarriren bat badu, eskatzaileak 10 egun balioduneko epea izango du hori zuzentzeko, zuzenketa-eskaera egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halakorik egingo ez balu, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, eta hala adieraziko zaio.

Plentziako Udalak behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Bizkaiko El-karreragingarritasun Nodoaren bidez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez, udal merkatuko postuen esleipen-prozedura tramitatzea eskatu duten pertsona eta erakundeei buruz. Arrazoi teknikoak direla-medio elkarreragingarritasuna posible ez balitz, Plentziako Udalak tramitazioarako behar diren datu edo dokumentu guztiak eskatu ahal izango ditu.

Postu baten esleipen-eskaera aurkezteak esan nahi du onartzen direla deialdi hone-tako oinarriak.

#### **4. Udalaren baimena lortzeko hautaketa-irizpideak**

1. Dagokien Lurralde Historiko edo Erkidegoko Artisautza Erakundeen Erregistroan inskribatutako ekoizleak izatea edo Artisautza Ziurtagiria edo antzekoren bat edukitzea: 3 puntu.

2. Ogibide mota:

- Ogibide ez tradizionalak: 2 puntu.
- Ogibide tradizionalak: 5 puntu.

3. Azokan bertan artisau-ogibidearen erakustaldiak egitea: 3 puntu.

4. Material berrerabili/birziklatu edo ekologikoak erabiltzen dituzten artisauak izatea: 2 puntu.

5. Puntu 1eraino, baldin eta eskaeraren titularrak hauetakoren bat egiaztatzen badu:

- %33 edo gehiagoko ezgaitasun edo elbarritasun aitortua: 0,50 puntu.
- Ekonomia sozialeko forma juridikoak: 0,50 puntu.

Berdinketa gertatuz gero, 1 eta 3. puntuetan eskuratutako puntuazioa hartuko da kontuan hautagaien hurrenkera finkatzeko. Halere, berdinketak jarraituko balu, zozketa egingo da.

#### **5. Baimenak**

Izena emateko eta beharrezko dokumentazioa aurkezteko epea amaitutakoan, aurkeztutako eskaera guztiak alderatuko dira, lehentasun-zerrenda bat sortzeko gorago adierazitako balorazio-irizpideen arabera; puntuazio handiena lortzen dutenek parte hartzeko aukera izango dute, lote bakoitzerako aurreikusitako stand kupoa agortu arte, interesatuek adierazitako lehentasunen arabera. Horretarako ebazpen bat emango da, Alkatetzako Dekretu bidez onartuko dena.

Eskaerak aztertu ondoren, bi zerrenda argitaratuko dira: bata esleipendunena, eta bestea itxaro-zerrendetan sartuko direnena. Zerrenda horiek ikusgai egongo dira iragar-ki-taulan eta udalaren web orrian.



Baztertutako eskaerak itxaro-zerrendan sartuko dira lortu duten puntuazioaren arabera hurrenkeran. Itxaro-zerrenda horretan sartzeko espresuki markatu behar da dagokion laukitxo eskaera-orri normalizatuan. Posturen bat hutsik geratzen bada, puntuazio ordena errespetatuz esleituko da. Berdinketa gertatzen bada itxaro-zerrendako eskaera bat baino gehiagoren artean, zozketa egingo da.

Aurreko puntuko irizpideen arabera aukeratutako artisauek baimen bat jasoko dute, zeinetan puntu hauek adieraziko baitira:

- Titularraren edo, hala badagokio, bere kolaboratzaileen edo bere kargura dauden langileen identifikazioa.
- Saldu ditzaketen produktuak.
- Bete beharreko baldintza orokorrak, bai eta produktu bakoitzaren baldintza espezifikoak.

## **6. Jarraipen batzordea**

Artisautza azokaren kudeaketa udaleko Ekonomi Garapen, Turismo, Merkataritza, Enplegu eta Landa Ingurune Zinegotzigoari dagokio, eta «Hautaketa eta Jarraipen Batzorde» bat sortuko da horretarako, honakoek osatuko dutena:

- Alkatetza.
- Landa Inguruneko Zinegotzigoa.
- Landa Inguruneko teknikariak.
- Turismo arloko teknikariak.

Batzorde hori aldiro bilduko da, gutxienez urtean behin, eta hauek izango dira bere zereginak:

- Merkatuan egin beharreko kontrolak proposatzea, aholkularitza eta informazioa emanaz ikuskatu behar diren produktuei buruz.
- Azokak arautzen dituen araudia betearazteko neurriak proposatzea.
- Saltzaile eta kontsumitzaileen hobekuntza-iradokizunak jasotzea eta bideratzea.

## **7. Eskubideak eta betebeharrak**

Onartuak izan diren artisauei azoka hasi aurretik abisatuko zaie.

Onartuak izan diren eta azokaren batera joan ez diren pertsonak zigortuak izan daitezke edo onartutako pertsonen zerrendatik baja eman ahal izango zaie, eta fidantzatik 30 euro deskontatuko dira huts egindako azoka bakoitzeko.

Azokara joan ez izanaren abisuak eta egiaztagiria udaletxean aurkeztu behar dira, 3. puntuan zehaztutako parte-hartze eskaeren bide berberak erabiliz.

Azokan postu hutsak geratzen badira, Udalak itxaro-zerrendan dauden pertsona/era-kundeei esleitu ahal izango dizkie postu horiek.

Hauek dira onartutako artisauen eskubideak:

- Euren artisauproduktuak erakutsi eta saltzea.
- Koordinazio - zerbitzua eta informazio orokorra jasotzea antolatzaileengandik.

Hauek dira onartutako artisauen betebeharrak:

- Aldez aurretik jartzea 1. puntuan aipatzen den fidantza.
- Eskaerako zerrendan espresuki adierazitako produktuak saltzea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea azokak dirauen bitartean.
- Debekatuta dago produktuak birsaltzea.
- Debekatuta dago artisaubaliabideekin egin ez diren produktuak saltzea.
- Erakusketariak ikusgai jarri dituen produktuez erantzungo du.
- Ikusgai dauden produktuen prezioa ongi ikusteko moduan markatu behar da.



- Postuko pertsona baimenduak edo postuan lanean ari direnak euskal hiztunak izan behar dira ahal den neurrian. Lehen hitza euskaraz egingo diete bezeroei, eta gai izango dira euren lana euskaraz egiteko. Era berean, lan hizkuntza euskaraz izango da eta euskaraz emango dute zerbitzua, salbu eta bezeroak argi eta garbi adierazi badu beste hizkuntza batean hitz egin nahi duela. Postuan dauden pertsonak euskaraz ez badakite ere, agurra gutxienez euskaraz egingo dute beti.
- Erabiltzaile/bezeroen bistan jarritako errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira. Errotulu elebidunik ez dutenek, itzulpena egiteko laguntza eska dezakete turismo bulegoan.
- Ziurtatu behar da standa irekita dagoela eta beharrezko arreta eskaintzen dela.
- Bermatu egin behar da eskaera-ereduan aurkeztutako produktuen stock-a.
- Erakusketariak standaren irudiaz eta egoera onaz arduratu behar du.
- Ez da egingo azoka ondo garatzea eragotzi lezakeen ekintzarik.
- Zaindu eta errespetatu egin behar dira azokako espazioak eta material komunak.
- Erakusketariak garbituko dute esleitutako espazioa eta haren ingurua, beti ere publikoarentzako irekiera-orduetatik kanpo. Hondakinak hondakinentzako lekuetan bota behar dira, birziklapena lehenetsiz.
- Antolatzaileek esleitutako tokian muntatuko da postua, eta erakusketariak ekarriko ditu horretarako beharrezkoak diren karpa, mahai, aulki eta material guztiak.
- Debebatuta dago azokarekin edo erakusketariarekin zerikusirik ez duten publizitate-kartel eta -pankartak jartzea, bai standetan eta bai haietatik kanpo.
- Debebatuta dago materialak ikusgai jartzea standetik kanpo.
- Debebatuta dago sustapen komertzialak egitea: likidazioak, beherapenak, merkealdiak, 2x1 eta antzekoak.
- Debebatuta dago musika partikularra eta bestelako soinuak erreklatuak erabiltzea.

Onartutako pertsonak goizeko 9:30etik aurrera hasiko dira stand-ak prestatzen, eta muntaketa-lanek bukatuta egon beharko dute goizeko 10:30ak baino lehen. Azoka eguerdiko 14:30etan amaituko da.

Ez da ibilgailurik sartuko azoka-eremuan 14:45ak arte, eta hortik aurrera sartzen diren antolatzaileen argibideak jarraituko dituzte. Standa desmuntatuta egon behar da 15:45erako.

Plentziako Udalak, bere eskumenen barruan, egoki irizitako neurriak hartu ahal izango ditu azokaren garapen ona bermatzeko; hala, besteak beste, erretiratu egingo ditu baimenik ez duten produktuak, eskaerako zerrendan agertzen ez direnak edota aurkeztutako artisa-karnetarekin bat ez datorren ogibideei dagozkienak. Horrek berekin dakar standa ixtea eta erakusketaria azokatik egozte, eta debebatuta izango du hurrengo azokan parte hartzea.

Antolatzaileek ez dute erantzungo pertsona edo/eta ondasunek jasan lezaketan edo nolako istripu edo kalteengatik. Halaber, ez dute erantzungo ebasketa, lapurreta edo kalteek standeko material eta objektuetan eragindako galerengatik.

Antolatzaileek eskubidea dute:

- Azokan parte hartzeko eskaerak ez onartzeko, baldin eta uste badute artisauek ez dituela betetzen ezarritako baldintza administratiboak, edo produktuak ez daukala eskatzen den gutxieneko kalitaterik.
- Azokako edozein stand erretiratzeko, baldin eta irregulartasunen bat detektatzen badute.
- Udal honek antolatzen duen hurrengo azokan parte hartzen ez uzteko, baldin eta artisauek ez bada standera agertzen ongi dokumentatutako arrazoi justifikaturik gabe.
- Standak eta ikusgai jarritako produktuak grabatzeko eta argazkiak ateratzeko (udalak egin ditzakeen argitalpenetan erabiltzeko).
- Aldaketak egiteko azokan data eta orduetan.



Udalaren eskumena da oinarri hauek interpretatzea, egoki iritzitako ebazpen edo jarraibideak emanaz, bai eta oinarriok baliogabetzea eta bertan behera uztea, baldin eta horretarako egiaztatutako arrazoiak baditu.

Oinarri hauek betetzen ez badira, espediente bat hasiko da; eta Udaltzaingoak isunak jarriko ditu —hala badagokio— eta konfiskatu egingo ditu bai ikusgai dauden ondasunak, bai eta saltzaileek euren gain hartu dituzten edo Udalak ezarri dituen betebeharrak orokorrak urratzen dituzten gainerako material guztiak.

Konfiskatutako ondasunak indarrean dagoen legeriaren arabera tratatuko dira.



**PLENTZIAKO ARTISAU AZOKETAKO POSTUEN ESLEIPENEAN PARTE-HARTZEKO ESKAERA, 2023  
SOLICITUD PARA PARTICIPAR EN LA ADJUDICACIÓN DE LOS PUESTOS  
DE LAS FERIAS DE ARTESANÍA DE PLENTZIA, 2023**

**Eskaria aurkezten duen pertsona edo entitatea  
Persona o entidad que presenta la solicitud**

Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos		IFK-NIF / NAN-DNI / Pasaporte	
Noren ordezkartizan / En representación de		IFK-NIF / NAN-DNI / Pasaporte	
Ondorengoa naizen aldetik / En calidad de			
Kalea / Calle	Zk. / N.º	Solairua / Piso	Aldea / Mano
Posta-kodea / C. Postal	Lurraldea / Provincia	Herria / Municipio	
E-posta / E-mail		Telefono zk. / N.º teléfono	Mugikorrare zk. / N.º móvil

**Plentziako artisau azokan salgai jarriko diren produktu/ak  
Producto/s que pondrá a la venta en la Feria de Artesanía de Plentzia**

<hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>
<input type="checkbox"/> Artisautza tradizionala / Artesanía tradicional. <input type="checkbox"/> Artisautza ez tradizionala / Artesanía no tradicional.

**Loteen lehentasuna / Priorización lotes**

Adierazi lote zenbakia oinarrien eta deialdiaren arabera, lehentasun handienetik txikienera ordenatuta: Indicar número de lote según bases y convocatoria, ordenando de mayor a menor prioridad:
1. Lote _____
2. Lote _____
<input type="checkbox"/> Lote bakar batean parte-hartu nahi dut / Deseo participar en un único Lote. <input type="checkbox"/> Lote bitan parte-hartu nahi dut goiko lehentasunak kontutan izanik / Deseo participar en dos Lotes según prioridad arriba indicada. <input type="checkbox"/> Hautatua izan ezean, itxaron-zerrendan parte hartu nahi dut / En caso de no ser seleccionado, deseo formar parte de la lista de espera.



Eransten diren agiriak / Documentación que se adjunta

- Egindako lanen argazkiak eta dosierra, produktuak, teknikak, elaborazio-prozesua eta abar barne.
- Postuaren titularrak eta bere izenean jarduera egiteko baimena duten gainerako pertsonen elikagaien higienari buruz duten prestakuntzaren banakako ziurtagiria, elikagaien kasuan.
- Osasun-erregistroa, elikagaien kasuan.
- Erantzukizun zibileko aseguruua, merkataritza-jarduerearen arriskuak estaltzen dituena.
- Modalitate bakoitzean baloratzen diren alderdiak justifikatzen dituen dokumentazioa.

EGIAZTA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA

Plentziako Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden datu hauetan.

Egiaztapen horren aurka bazaude, markatu dagokion laukia eta adierazi zergatik ez zauden aurka. Aurka eginez gero, interesdunak dokumentazio hori aurkeztu beharko du.

- Gizarte Segurantzaren alta hartu izanaren egiaztatzea
- Gizarte Segurantzaren egunean egotearen ziurtagiria

Uko egiten diot nire datuak kontsultatzeari, eta arrazoi hauek ematen ditut:

---



---



---



---

BAIMENTZEN DUT Plentziako Udalak hurrengo datu hauen egiaztapenak eta kontsultak egitea:

- Zerga-betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria.
- Erakunde edo pertsona zergadun bat alta emanda dagoen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeak.

KONPROMISOA

Honen bidez, behean sinatzen duen pertsonak hitz ematen du, esku hartzen duen kalitateari dagokionez eta posturen baten esleipendun izanez gero, oinarrietan eta deialdian ezarritako baldintzak eta betekizunak beteko dituela.

- Fotografías de los trabajos realizados y dossier incluyendo productos, técnicas, proceso de elaboración, etc.
- Certificado individual de formación en higiene alimentaria de la persona titular del puesto y del resto de personas autorizadas a ejercer la actividad en su nombre, en caso de productos alimentarios.
- Registro sanitario, en caso de productos alimentarios.
- Seguro de Responsabilidad Civil que cubra los riesgos de la actividad comercial.
- Aquella documentación que justifique los aspectos que se valoran en cada modalidad.

DOCUMENTACIÓN VERIFICABLE

El Ayuntamiento de Plentzia va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los siguientes datos que obren en poder de la Administración.

Si usted se opone a dicha verificación marque la casilla correspondiente e indique el motivo por el que se opone. En caso de oposición, la persona interesada deberá aportar dicha documentación.

- Acreditación de alta en la Seguridad Social
- Acreditación de estar al corriente de pago en la Seguridad Social

Me opongo a la consulta de mis datos, alegando los siguientes motivos:

---



---



---



---

AUTORIZO a que el Ayuntamiento de Plentzia realice las comprobaciones de los siguientes datos:

- Acreditación de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- Epígrafes del Impuesto de Actividades Económicas en los que una entidad o persona contribuyente está dada de alta.

COMPROMISO

Por la presente, la persona abajo firmante se compromete, en la calidad en la que interviene y en el supuesto de ser persona adjudicataria de algún puesto, a cumplir las condiciones y requisitos establecidos en las bases y convocatoria correspondientes.



**Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa**  
**Información básica sobre protección de datos**

Tratamenduaren arduraduna Responsable del tratamiento	Plentziako Udala / Ayuntamiento de Plentzia Astillero plaza, z/g (48620-Plentzia)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak Contacto del Responsable del tratamiento	dpd@plentzia.eus
Tratamenduaren helburua Finalidad del tratamiento	Iraupena: Ezarritako legezko epea. Duración: Plazo legal establecido.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa Legitimación o base jurídica del tratamiento	Erabiltzailearen baimena / Legeak behartuta. Consentimiento de la persona usuaria / Por obligación legal.
Hartzaileak Personas destinatarias	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei. Los datos personales no serán cedidos a terceros.
Pertsonen eskubideak Derechos de las personas	Interesdunek beraien datuak atzitu ahal izango dituzte, eta datuak zuzentzeko eskatu; eta, hala badagokio, datuak ezabatzeko, datuei aurka egiteko edo tratamendua murrizteko. Los interesados pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través del Delegado de Protección de Datos.
Informazio gehigarria Información adicional	<a href="http://www.plentzia.eu/esES/Orrialdeak/DatuakBabestu.aspx">http://www.plentzia.eu/esES/Orrialdeak/DatuakBabestu.aspx</a> <a href="http://www.plentzia.eu/esES/Paginas/ProteccionDatos.aspx">http://www.plentzia.eu/esES/Paginas/ProteccionDatos.aspx</a>

Baimena	Autorización
Honen bitartez, sinatzaileak baimena ematen du: — Plentziako Udalak deialdi honetan ezarritako baldintzen datuak egiaztatzeko, datu horiek Udalaren esku daudenean. — Diru-laguntza ematen duen organoak egin behar-reko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.	Por la presente, el abajo firmante autoriza: — A que el Ayuntamiento de Plentzia compruebe aquellos datos que siendo requisitos establecidos en la presente convocatoria, obren en poder del Ayuntamiento. — Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

Data / Fecha: \_\_\_\_\_

Eskatzailea / Solicitante  
Sinadura / Firma